

Estropezuka aurrera egitea, diozu. Interesgarriagoa da bide bihurria, bide zuzena baino?

Bakartiagoa izan ohi da, bide zuzena normalean artaldean egiten baita. Bihurgunedun bidean, gelditu zaitezke, aurrera eta atzera egin... Askeagoa da. Eta basatiagoa, naturala, errekak hori du bere bidea; etxeko iturria, jario zuzena, gizakion asmakizuna da, naturak irteerak bilatzen ditu, eta aurkitu egiten ditu. Egun gomendatzen zaigu denek batera bide zuzenean ekitea, urrutiago iristeko, baina interesgarriagoa da bihurra, errebeldeagoa. Okerrago pasako duzu agian, bakarrik zaudelako eta leku gehiagotan geldituko zarelako, baina beharbada urrutiago iritsiko zara, gauza gehiago ikusiko dituzu, altxor gehiago aurkituko.

Pelikula hau esperimentaltzat, abangoardistatzat har daiteke, baina 1920ko hamarkadako film baten esperimentazioan eta abangoardian oinarritzen da! Zer da abangoardia?

Abangoardista eta aldi berean klasikoa da filma, esperimentazio hutsa ez dut atsegin, zerbait kontatu nahi dut. Ez dut narrazioa galdu nahi, baina era berean esperimentazio handiena narrazioan eta umorean egin dut. Surrealismo kutsu handiarekin, esperimentatu egin dut istorioekin, eta frogatu nahi izan dut ustekabeak logika duela bere baitan. Narrazioaren barruan, pailazo felliniarra, zerrizaina, printzesa errumaniarra... sartzen dira, surrealista dirudi, baina logika baten barruan dago eraikia, bide beraren zati dira, erreka beraren adarrak.

Eta kontatzen dituzun adar edo istorio horietatik guztietatik, zein duzu gustukoen?

Michel Etcheberryk hunkitu ninduen gehien, Bidarteko bizilagun zaharrenetakoak. Erretiratu ostean, Bidarteko antzinako portua maketan berreraiki du eta izugarria da. Urpean geratu diren arroken izenak dakizkien bakarra da, arrantzaleek beraien kartografia propioa egiten zutelako garai batean, baina dagoeneko inork ez ditu arroka horiek izendatzen, eta lehen esandakora bueltatuz, gizon hau hiltzen denean, zer pasako da izen horiekin, arroka horiekin? Ilargita, Harrigaizto, Eli-zaportu, Bibaziki... ☹

Mikel Garcia, Argia 2332. alea, 2012-07-22

zuzendari, gidoilari eta aktorea

Oskar Alegria

Oskar Alegria (Iruñea 1973). Kazetaria ikasbidez, Canal Plus eta CNN+eko informatiboetako berriemaile hasi zen Madrilan lanean. Kultur programetan erredaktorea eta literaturari buruzko saioren koordinatzailea izan da Telemadrid-en (Los Cinco Sentidos) eta Euskal Telebistan (Sautrela). Dokumental gastronomikoaren arloan, ETB-telebistarentzat "Maestros de la cocina Vasca" saila idatzi eta ko-zuzendu du, Arzak, Subijana, Aduriz, Berasategui eta Arbelaitz sukaldariei buruzkoa.

2002tik, El País-eko El Viajero gehigarrian bidaia-erreportajeak idazten ditu, eta "Las ciudades visibles" izeneko proiektu artistikorekin egitea da, Enrique Vila-Matas idazlearen bermearekin. 2009tik Nafarroako Unibertsitateko Ikus-entzunezko Gidoigintza Masterrean dokumentalen gidoigintza irakaslea da eta Chillida-Leku Museoa haurrentzako Argazkigintza Abstraktuko Lantegi bat zuzendu du. ☹



DECLARACIÓN DE GUERRA
Urtarrilak 10



EMAK BAKIA!
Urtarrilak 17



CESAR DEBE MORIR
Urtarrilak 24



EL AMIGO DE MI HERMANA
Urtarrilak 31



RÍNDETE MAÑANA
Otsailak 7



MOONRISE KINGDOM
Otsailak 14



LA PEQUEÑA VENECIA
Otsailak 21



EL ILUSIONISTA
Otsailak 28



LA CASA DE LA TOLERANCIA
Martxoak 7



THE DEEP BLUE SEA
Martxoak 14

GOITZENIZ zinekluba



URTARRILAK 17

(Euskal Herria, 2012) 84'

Zuzendaria, Produkzioa, Gidoia, Argazkia eta Muntaketa: Oskar Alegria

Musika: Abel Hernández, Mursego, Ruper Ordorika, Richard Griffith

Soinua: Abel Hernández

Festibalak: Bafici, Distrital, Edinburgh, Telluride, Donostia, Fic Valdivia, Doc Lisboa, Morelia, Montreal...

LA CASA emak bakia





Man Ray artista dadaistak Emak Bakia 16 minutuko zinepoema egin zuen 1926an, lan esperimental eta berritzailea. Miarritze inguruko etxe batean errodatu zuen, diotenez Emak Bakia izeneko etxe batean. Arrasto horren atzetik, eraikinaren bila abiatu da Oskar Alegria 39 urteko iruindarra. Emak Bakia Baita dokumentala da emaitza, bihurgunez eta ezustekoz betetako bidaldia, eta batez ere, Man Rayren arima berreskuratzen duen filma.

Helburua baino gehiago, aitzakia da etxea aurkitzea, eta prozesua da garrantzitsua. Istorioari bere bidea egiten utzi behar zaio?

Ez guztiz. Jean Rouch zinegileak zioen bezala, eszena on bat lortzeko bota makila zakurrari. Ekarriko dizu edo ez, edo beste zerbaitek ekarriko du... baina zuk makila bota behar duzu, abiapuntua jarri. Kaos hutsa ez dut uste formula denik. Hori esanda, etxea aitzakia da, bai, bidean altxor gehiago aurkitzeko: nahiz eta etxea ez topatu, gauza interesgarriagoak aurki ditzakezu bidean; helburuarekin ez itsutzea da gakoa, jarrera irekia izatea. Istripu hitza erabili ohi dut nik: zientzialari handiek ere, probetari begira baino gehiago, istripuz egin dituzte aurkikuntza ugari, eureka momentu horretan.

Kontakizun interesgarriak ez topatzeko arriskua izan dezake istorioa istripuen edo ustekabeen esku uzteak?

Egia da gidoia zoriak egina dela, misterioak; nik makila botatzen dut, baina gauzak beren kabuz datoz. Hala ere, beti dago kontatzeko zerbaite. Areago, dena kontatu ezina da arazoa, kanpoan altxor ugari utzi behar izan dut. Jarrera onarekin joanez gero, beti aurkitzen duzu zerbaite; magiak magia erakartzen du, eta gauzetara eta besteengana umil eta interes ustelik gabe hurbiltzen bazara, modu berean erantzuten du jendeak. Hilerrian hasten da filma, eta hilerrietan beti aurkitzen duzu zerbaite. Hilobi baten bila bazoaz, istorio interesgarriak dituzten beste bost aurkituko dituzu. Eta berdin Lapurdiko etxeekin, edozein ateran atzean duzu istorioaren bat.

Hasiera batean hutsalak diruditen istoriei hel-tzen diezu, eta edertasuna aurkitzen duzu adibidez plastikozko poltsa baten "dantza" mugimenduan, edo etxeen izenetan. Begiradan dago gakoa?

Lupa jartzean datza, edertasuna dago gauza txikienetan ere. Hemengo etxeen izenek bakarrik historia handiak dituzte atzean. Azkainen esaterako Zapata Txurienea izeneko etxea dago, imajinatu, ziur denak zapata bel-

tzekin ibiltzen zirela Azkainen, etxe horretako jabea izan ezik. Zein ote zen ezaugarri horregatik nabarmentzen zen pertsona hori? Ederra iruditzen zait. Edo Ibardineko Aire Leku muinoan, zoragarri jotzen du haizeak, eta izena aldatuko baliote, airea desagertuko litzateke. Izena eta izana. Muinoak Belar Berdea izango balu izena, belarrean jarriko genuke arreta, haizea beharbada ez genuke sentitu ere egingo. Poesia hori aldarrikatu behar da, garaiotan magiaren monopolioa zientziak hartu duelako. Zientziaren aurrerapenak liluratzeko gaituzte, baina lehen gauzarik poetikoenak ziren gehien harritzen gintuztenak. Etxe bat, pertsona bat bilatzea oraindik abentura bat izan daiteke batzuentzat, baina belaunaldi gazteenek Facebook bidez bilatzen dituzte lagunak. Magia bukatzen da hor, poesia amaitzen da, eta nire belaunaldikook oraindik zientziak eramaten ez gaituen lekuetara eramaten gaitu poesiak. Kazetaritza ikasi dut eta kazetari moduan ekin nion etxea bilatzeari, artxiboetan begiratzeko, galdetzen... baina lan horrek ez zizkidan erantzunak ematen eta azkenean kazetariak artistari eman zion lekukoa, poesia eta magia horrek urrutira eraman zaitzakeelako. Kazetaria eta artista eskua emanda doaz film honetan, poesia hutsa gehiegi aldentu daitekeelako istoriotik.

Umorea eta alde ludikoa oso presente dago Man Rayren obran, baita zurean ere. Garrantzitsua da istorioak kontatzeko orduan?

Bai. Etxea bilatu bitartean, jolasten nabil, eta oso jarrerara dadaista da hori, Man Rayk zuenaren gisakoa. Istorioak kontatzeko ezinbesteko jarrera da, eta hain zuzen, Emak Bakia etxea eraiki zuen gizonaz hitz egiten didan arkitekto errumaniarrak azpimarratzen du hark zuen umorea. Bi zakur zituen: "Sofatik jaitsi" eta "Baita zu ere". Familiarengandik askatasuna bilatuz, etxea eraiki zuen Bidarteko muinoan, eta Emak Bakia izena jarri zion. Film hau errodatzean konturatu naiz askatasuna benetan praktikatzeko dutela hoberen ezkutatzeko dutenak. Man Rayk gauza bera egin zuen: euskal hitzekin izendatu zuen bere filma, eta hitz horien babesean ezkutatzeko askatasuna, utzidazu bakean, *Fiche-moi* la paix titulatu balu baino hobeto. Paradisua izendatzeko modua zen Emak Bakia.

Nahi estetizista nabari zaio dokumentalari. Estetikak baldintzatzen du artea?

Apropos gaizki errodatutako dokumentalak ikusi ditut, eta ez dakit zergatik, baina sarri itsuskeria bertute gisa defendatzen da. Nik batzuetan uzten dut haizeak mugitu dezala kamera, Man Rayk berak plano askeena egiteko airera bota zuen kamera, errodatu bitartean, baina hori ere ederra iruditzen zait estetikoki. Eta iruditzen zait egiazko gauzak kontatzen direnean, aldi berean ederrak badira, gorago eramaten zaituztela. Itsuskeria bere horretan ez zait sinesgarri egiten.

Man Rayren lana baino gehiago, batez ere Man

Rayren espiritua berreskuratzen du filmak, haren zinema askea, istripuzko zinema.

Pelikulari, fisikoki bakarrik ez, haren espirituari ere orbanak ateratzen zaizkio denborarekin, kalteak jasaten ditu, eta Rayren zinema egiteko moduak (askatasunean, aurrekonturik onartu gabe, bakarrik) kalte asko jasan ditu gaur egun. Nire neurrian, espiritu hori berreskuratzen saiatu naiz, modu berean lan egiten, bakarrik (eta era berean auzolanean, laguntza handia jaso baitut), jolasean, disfrutatzea helburu. Nahi zuena egiten zuen Man Rayk, narratiborik gabeko istorioa (imajinatu hori 1926an!), besteen gustukoa izango ote zen kontuan izan barik, hori da zinema askea. Eta nik, tripetatik atera zaidan moduan egin dut nire pelikula, nolabait Man Ray berpiztuz. Álvaro Cunqueiro idazle galiziarrek zioen lurperatzen diren gauzetako asko ez daudela hiliak, eta hala da. Nahi izanez gero, berpiztu egin ditzakezu.

Hain zuzen, bakean eta libre aritzeko espiritu horri erantzuten dio "emak bakia" filosofiak, pelikulako hainbat elkarriketatuk jarraitzen dutena. Filosofia bera darabilzu?

Bai, dokumental hau ez baita Man Rayri buruzkoa, bi hitz horiei buruzkoa baizik. Emak bakia ez da xuxurla bat, oihuka esaten den zerbaite, eta espiritu hori mantenduz esamoldea erabili duten proiektu ugari dago: nahi duen arropa egiten duen Florentziako diseinatzaila, musika ganberroa oinarri duen Madrilgo musika talde bat, abangoardia helburu duen argialetxe-disko-etxea... Nire kasuan, kazetari gisa egiten utzi ez didatena egiteko aukera izan da filma, emak bakia esateko modua, mugatzen zaituzten gauzei "utxidazue bakean" esateko modua. Eta orain pozik nago emaitzarekin, baina askatasuna ordaindu egiten da, munduak ez dizu erraz jartzen: askok oztipoak jartzen dizkizute, esaten dizute bakarrik ez duzula lortuko, proiektua aurrera ateratzeko industriari men egitea hobe dela, audioa oso gaizki entzungo dela horrela eginda... eta makien gisan aritu behar zara batzuetan, zureari eutsiz. Oso konbentzitututa egon behar duzu, bertan behera uzteko zorian egon naiz behin baino gehiagotan, baina nafarra naiz, burugogorra, kar, kar, kar. Aldi berean, uste dut muturrerara jo gabe baina proiektuan nolabait sufritzea ona dela, prozesuak gogorra izan behar duela, hein batean. **Dokumentalak zenbat du zuretik eta zenbat Man Raytik?**

Man Ray beti dago ondoan, kopilotua da. Sarri galdetu diot neure buruari, ea Man Rayri gustatuko ote zitzaion pelikula, bere obra abiapuntu bezala baliatzen dudalako gero nire pelikula propioa kontatzeko. Baina Víctor Erice zuzendariak edo Man Ray Fundazioak esan didate hain juxtu hori dela gehien gustatuko zitzaiokeena: nik ere nahi nuena egin izana, aske, bere biografia kontatu beharrean. Nire nerbio-sistema dago obra honetan, antzietatea, estropezuka aurrera egite hori...